



2021/11/25EKO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2021/11/25
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:25

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Gorka Astondoa Altuna

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Iban Herrarte Arana

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

Oihana Ameskoa Perez

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

| | |
|---|---|
| 1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA. | 3 |
| 2. DEKRETUEN BERRI EMATEA. | 3 |
| 3. ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL ERAIKINEN GARBIKETA-ZERBITZUAREN KONTRATUA ESLEITZEA. | 3 |
| 4. 2021EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA. | 3 |
| 5. EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNEKO ADIERAZPENA. | 4 |
| 6. INTERES PUBLIKO GORENEKO PROIEKTUEN ERREGULAZIO BERRIARI BURUZKO MOZIOA. | 6 |
| 7. GALDERAK ETA ESKAERAK. | 7 |



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak 2021eko urriaren 28ko ohiko bilkurako aktaren gainean inork oharririk ote duen galdetu du.

Inork akta horri buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak akta onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (373/21etik 409/21era).

3. ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL ERAIKINEN GARBIKETA-ZERBITZUAREN KONTRATUA ESLEITZEA.

Alkateak adierazten du, Udalbatzak 2021eko irailaren 30ean egindako saioan, besteen artean, ondokoa ebatzi zuela aho batez: onartzea Aramaioko udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeko lizitazioaren espedientea. Ondoren, dagokion lizitazio-prozedura ireki zen; hain zuzen ere, prozedura irekiaren bidez, esleitzeko hainbat irizpide emanda: batetik, eskaintzaren balorazio teknikoa, balio iritziaren arabera dena; eta bestetik, eskaintzako prezioa, automatikoki zenbatesteko irizpidea dena. Guztia, izapidetze arruntarekin bideratu da.

Emandako epea amaitu ondoren, azaldutako interesdunen proposamen ekonomikoak aztertu ondoren, dagokion txostenak egin dira eta jardunbideak bete.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Zerbitzu Batzordeak egindako diktamena:

“**Lehena.- SAMSI IBERIA S.L.U.** enpresari esleitzea, ARAMAIOKO UDALAREN ESKU DAUDEN HAINBAT ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUA emateko kontratua. kontratuaren prezioa izango da 65.741,76.-€/urte gehi %21eko BEZari dagozkion 13.805,77.-€, hau da, guztira **79.547,53.-€/urte**. Bestalde, kontratuaren exekuzioan kontuan hartu beharko dira, lizitatuak bere proposamenean aurkeztutako txostenean eskaintako **hobekuntzak**.

Bigarrena.- Alkatea eskuordetzea dagokion kontratua sinatzeko eta beharrezko jardunbideak aurrera eramateko.

Hirugarrena.- Kontratu honen arduradun izendatzea Iban Herrarte Arana jauna, udaleko zerbitzu batzordeko lehendakaria (edota, badagokio, bere ordezkaria), 9/2017 legeak, azaroaren 8koak, sektore publikoaren kontratuenak, 62 artikuluan aurreikusitako funtzioekin.

Laugarrena.- Kontratu formalizatzekeo dei egitea esleipendunari, datorren abenduaren 2an alkatetzaren bulegoan goizeko 12etan bertaratu dadin enpresaren ordezkaria.

Laugarrena.- interesdun guztiei ematea adjudikazioaren berri, eta erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratzea.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Zerbitzu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. 2021EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA.

Alkateak gogorarazten du datorren abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna 2021 ospatuko dela eta aurkezten du horren inguruan prestatutako testua. Testu horrek, hitzez hitz, horrela dio:

“2021EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

Euskara lanabes, aro berrirantz

Erabilera-eremu berri eta ez formaletan ere, euskarak amas berri

Tentuz, baina ateratzen ari gara, azkenean, beltzenetik argira. Berreskuratzen hasi gara gutariko bakoitzaren eta elkarrekin osatzen dugun herriaren eta gizartearen bizitza erakargarri ez ezik, jasangarri ere egiten duena: zuzeneko harremanak; elkartzeko ohiturak, aukerak eta



guneak; osatzen gaituzten besteengana biltzeko joera. Eta, horrekin batera, ezinbestekoa dugun jarduera ekonomikoaren hari eta sareak berriz ere indartzen ari gara, pandemiaren aurretiko tokira eta, inola ere ahal balitz, hobera iristeko itzaropenez.

Eta erabaki sendo bat dugu gidari: ez dadila funtsezkorik ezer atzean geratu.

Ezta euskara ere. Inola ere ez.

Gurekin batera egin dio euskarak pandemiari aurre, eta gurekin irten behar du garaile. Izan ere, aro berrian, gure eta geure gizartearen zaugarritasunaren jakitun egin gaituen egoera larriaren ondoren, harreman eta komunikazio molde, ohitura eta bide berriak sortzen ari dira, eta are berriagoak eta harrigarriagoak sortuko dira aurrerantzean.

Pandemiak agerian utzi du jakin bagenekiena: zenbateraino diren ezinbestekoak komunikazio ildo eta sareak, zenbaterainoko balioa eranstean dion komunikazioak gure zeinahi jarduerari; orain, jakiteaz gain, sentitu ere egiten dugu errealitate hori: sakon-sakoneraino barneratu dugu komunikazioaren, harremanaren funtsezkotasuna. Hori da aro berriaren ezaugarri nagusietariko bat. Eta hori bera du euskarak erronka: komunikazio eta jarduera eremu berrietan ere, naturaltasun osoz, dagokion tokia hartzea. Eraginkorki. Tinko.

Euskara, euskal hiztunon komunitatearen jarrera proaktiboari esker, IKTek hizkuntza gutxituen hedapena eta indartzerako ekarri duten erronka handiari aurre egiten ari zaio, komunikazio eta informazioaren teknologiaren sareetan. Badu tokirik. Baliagarria da. Eta zinez zaila du hizkuntza ozearo erraldoian horrelakorik lortzea.

Eredugarria da alor horretan ere euskal hiztun komunitateak egin duen eta egiten ari den lana, besteak beste erabilerarekin zuzen-zuzenean loturiko presentzia delako euskarari benetako balio erantsia dakarkiona. Eta argi geratzen ari da erakunde publikoak eskaini behar dugun ezinbesteko babes eta lidergotik, ekimen eta lankidetzara publiko-pribatuaren eskutik lan egiten badugu, erronkaren neurriak ez gaituela beldurtu behar. Gai garela argiro erakusten ari garelako, adibidez hezkuntzaren munduan, hedabideenean, osasungintzarenean, eremu sozioekonomikoan, administrazioarenean eta beste hainbat eta hainbatetan urrats ausartak eman behar direla eta ematen ari garela euskal hiztunen eskubideen gauzaperen errealean.

Eta horietan guztietan aurrera egin beharra dago, jakina, aurrerapauso sendoagoak emanez, jarraikortasunez, etengabeko berrikuntzaren bidetik eta guztion konpromisotik. Baina pandemiaren osteko aro berriaren hasiera honek beste ikuspegi bat eranstea eskatzen digu: hizkuntzaren erabilera formalekin batera, eremu ez formalekoa landu beharra dago, behar besteko lehenetsunez. Euskal hiztunak naturaltasun osoz gauzatu behar du euskaraz bizitzeko aukera, eguneroko harremanetan eremu formaletik lan mundu, aisialdi, kultur edo kirol eremuetara igarotzean, hori bera baita, hain zuzen ere, euskaraz bizitzearan esanahietako bat. Ezin dizkiogulako euskarari ukatu gorputz eta espirituaren atsedean eta gozamenari lotzen zaizkion eremu horiek. Eta hor aurrera egiteko, hiztunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izango da instituziook egin behar dugun ahalegina: bitartekoak jarriz eta eredugarritasuna erakutsiz.

Euskararen bizi-endarra dugu jokoan, eremu formalez gainera, eremu ez formal horiek euskararentzat irabaztearen erronkan. Izan ere, alor horretan euskararen erabilerak jauzi bat egiteak errotik eta norabide zeharo positiboan aldatuko luke hiztun asko eta askorengan, oso bereziki gazteengan, euskararekiko bizipena.

Aisialdi eta kirolaren eremuek badituzte, bestalde, berezko ezaugarri baliotsuak hizkuntza erabiltzeko ohituren aldatetari dagokienez, eta askotariko antolakuntzarako joera dute (klubak, federazioak, elkarteak, taldeak...). Nekez bilatuko genuke esparru egokiagorik gazteengana iristeko, euskararen erabilera ez formalari berebiziko bulkada emateko, partaide gazte zein ez hain gazteengan euskararantz urrats eraginkorra egiteko gogoia aktibatuz. Horra, beraz, eginkizuna.

Aukera paregabea dugu normaltasun berri baterako bidearen hastapen honetan berreskuratzen ari garen eta asmatuko ditugun harreman eta erabilera-eremu berrietarako euskara, bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko. Guztion esku dago.

Euskara prest dugu; gure gizartea, gogotsu; gure herria, erabakia hartuta. Abia gaitzen."

Besterik gabe, Bozketa deitu eta Udaltzako, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, 2021eko Euskararen Nazioarteko Egunerako adierazpena ONETSI ETA BERE EGIN DU.

5. EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNeko ADIERAZPENA.

Alkateak gogorarazten du azaroaren 25a dela Emakumeenganako Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna eta aurkezten du horren inguruan udalak prestatutako testua. Testu horrek, hitzez hitz, horrela dio:

"AZAROAREN 25eko ERAKUNDE-ADIERAZPENA

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, indarkeria mota horren egitura-izaera berresten dugu eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko jendartea eraikitzeko konpromisoa adierazten dugu. Era berean, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorritik, berresten dugu beharrezkoa dela esku-hartzearen arlo guztietan jarduerak planteatzea: prebentzioan, detektazioan, arretan, babesan, koordinazioan eta justizian, biktimei eta biziraun dutenei erreparazioa emateak duen garrantzia azpimarratuz.



Irmo gaitzesten ditugu 2021ean Euskal Herrian erregistratu diren feminizidioak, azarora arte 5 emakume erail baitituzte. Horrez gain, 2003tik erail dituzten 112 emakume eta 11 adingabeak gogoratu nahi ditugu.

Ezin dugu alde batera utzi gurea bezalako landa-inguruneetan zailagoa dela indarkeria matxista kasuak detektatzea, biztanle gutxiagoko eremuak direnez, estigma soziala are handiagoa baita hirietan baino. Anonimotasuna galtzeko beldurra, isolamendua, urruntasuna, bakardadea, baliabideen sakabanatzea eta mendekotasun ekonomikoa dira emakumeek laguntza eskatzeko kontrako faktoreetako batzuk.

Horregatik, tokiko gobernuek gure gain hartzen dugu biktimei arreta emateko ardura eta dugun eskumena, gure herrietan indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik gertuen dauden erakundeak garelako, eta,

Aurrekoa ikusita, Aramaioko Udalak konpromiso hauek hartu ditu:

LEHENENGOA: Udalak garatutako jarduera eta ekintzetan genero-ikuspegia txertatzen aurrera egitea, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna murrizteko eta, beraz, indarkeria matxista murrizten laguntzeko.

BIGARRENA: indarkeria matxista jasaten duten emakumeak detektatzen eta artatzen dituzten zerbitzuen arreta eta koordinazioa hobetzea, berdintasunaren eta indarkeriaren arloko prestakuntza espezifikoko baliabideak emanez. (Osasun-zentroak, gizarte-zerbitzuak, ikastetxeak eta abar)

HIRUGARRENA: Giza Eskubideen ikuspegitik, eraildako eta/edo bizirik atera diren emakumeak aitortzeko memoria historikoko ekintzak eta kaltearen ordaina sustatzea.

LAUGARRENA: herritarrek eta, zehazki, gazteenak sentsibilizatzeko lanarekin jarraitzea.”

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta, proposatzen du, alkateak irakurritako testuaren ordezkari beste testu bat onartzea, hain zuzen ere, Eudelen adostutako testua azaroaren 25aren inguruan. Hartara, testua irakurtzen du eta hitzez-hitz horrela dio:

“AZAROAREN 25ERAKO ADIERAZPEN EREDUA, 2021EKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA DELA ETA

Emakumeen aurkako indarkeria larderiarako tresna indartsua da, emakumeei zuzendua, indarrean dauden genero-arauak desafiatu eta eralda ez ditzaten. Mehatxurako tresna hori zuzenean emakumeengan erabiltzen da, baina baita haien gertuko pertsona maitatuenengan ere, min handiagoa sortzeko modu gisa. Kalkuluen arabera, bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik indarkeria jasaten duten EAEko hamar emakumetik seik seme-alaba adingabeak dituzte, eta horiek ere biktima bihurtzen dira.

Indarkeria bikarioa esaten zaio emakumeari, hirugarren pertsonak baliatuz, kalte psikologiko handiena eta larriena eragiteko egiten zaion biolentzia motari, zeinak ankerkeria-maila gorena lortzen duen haien erailketarekin (seme-alabak, ama, aita, egungo bikotekidea, etab.). Istanbulgo Hitzarmenean ezarritakoa aplikatuz, kasu horiek ere genero-indarkeriaren parte gisa ulertzen dira, seme-alabei egindako kalteak erasotzaileek emakumei tratu txarrak transmititzeko tresna bihurtzen diren heinean.

Azken lege-aldaketek dagoeneko jasotzen dute figura hori, biktima adingabeak babesteko neurriak sortzeari eta hedatzeari dagokionez. Hala ere, oraindik ere beharrezkoa da genero-indarkeria ukatzen duten, kasu horietan seme-alaben arriskua gutxiesten duten eta indarkeria horri aurre egiteko tresna juridikoak zalantzan jartzen dituzten diskurtsoen eta jarreraren aurka ohartaraztea. Jarrera horiek adingabeen eta emakumeen bi biktimizazioan eragiten dute, haien salaketak susmopean jartzen dituzte, amak zigortzen dituzte, haien testigantza gutxiesten dute eta aitaren guraso-ahalaren eskubidea babesten dute, emakumeen eta adingabeen segurtasunaren eta indarberitzearen gainetik.

Emakumeen aurkako indarkeria beren seme-alaben bidez sistematikoki egikartzeko modu horren aurrean, bai eta emakumeak kontrolatzeko, hertsatzeko eta kaltetzeko modu guztien aurrean ere, euskal erakundeek indarkeria horri aurre egiteko erantzukizuna dugu, kontuan hartuta ez direla gertakari isolatuak, egiturazko desberdintasun-egoera bati erantzuten diotela, eta egoera horri ikuspegi feministatik heldu behar zaiola.

Horregatik, XXXXXX Udalak honako konpromiso hauek hartu nahi ditu:

- Indarkeria bikarioaren errealitate hori agerian jartzen eta behar bezala artatzen laguntzea, besteak beste, Istanbulgo Hitzarmenak jasotzen dituen indarkeria-bideen biktima adingabeak koordinazio protokoloetan eta indarkeria matxistaren biktimak artatzeko protokoloetan txertatzea eta protokoloak eguneratzea.
- Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak hautematen eta esku-hartze goiztiarra egiten laguntzea, udal-zerbitzuen bidez, beste eragile batzuekin lankidetzan (hezkuntza-, osasun- eta polizia-agentek, etab.), eta emakumeek beren ardurapean dituzten adingabeekin eta kaltetutako beste pertsona batzuekin behar dituzten beharrei eta baldintzei erantzutea.
- Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak babesteko eta esku hartzeko prozesuak hobetzea, beren eskumenen esparruan, ikuspegi feminista duen sektore arteko abordatze integral eta holistikotik.
- Neurri guztien erdigunean jartzea biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea, eta laguntza integrala ematen laguntzea, prozedura judizialarekin duten inplikazio- edo lankidetzata-maila edozein dela ere.
- Toki-administrazioko langileak berdintasunari buruzko prestakuntza jaso dezaten bultzatzea, bereziki emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean erantzuten diharduten langileei, genero-ikuspegia eta giza eskubideen ikuspegia aintzat hartuz.
- Lanean jarraitzea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako, eta, ondorioz, haien seme-alaben aurkako, herri-utun bat lortzeko, herritar guztien jarrera aktiboa behar dugulako indarkeria matxistikari gabe gizaritza bat lortzeko.



Herritarrei gogorarazi nahi diegu indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabideen sarea eskuragarri dagoela, besteak beste, SATEVI (900 840 111) indarkeriaren biktimei diren emakumeentzako telefono bidezko arreta-zerbitzuaren eta ZEUK ESAN (116 111) haur eta nerabeentzako telefono eta online orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzuaren bidez.

Era berean, herritarrei dei egiten diegu azaroaren 25ean bat egin dezaten emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta beren udalerrietan deitutako mobilizazioekin."

Alkateak adierazten dio irakurri dutela testua eta ados daudela bertan esaten diren gauzekin; hala ere, lehenengoko testua bertako ikuspegitik landu dela eta udaleko berdintasun teknikariarekin. Halaber, proposatzen dio bi testuak onartzea edo biek bat egitea. Testu bakarra onartzekotan, EAJ udal taldeak aurkeztutako testuaren aurkako bozka emango dutela.

Pedro Elosegui zinegotziak ezetz erantzuten dio, bere taldearen nahia dela bigarren testua onartzea alkateak proposatutako testuaren ordeztu.

Besterik gabe, bozketa deitu eta Udaltzarak, lehenengo, alkateak aurkeztutako testua bozkatzen da eta EH BILDUKO 6 zinegotzien aldeko bozkarekin eta EAJ-PNV udal taldeko bi zinegotzien abstentzioarekin, "Azaroaren 25eko erakunde-adierazpena emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna" izendaturiko adierazpena ONETSI ETA BERE EGIN DU.

Ondoren, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako testua bozkatzen da eta EH BILDUKO 6 zinegotzien aurkako bozkarekin eta EAJ-PNV udal taldeko bi zinegotzien aldeko bozkarekin, "Azaroaren 25erako adierazpen eredu, 2021eko emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako eguna dela eta" izendaturiko adierazpena EZ DA ONARTZEN.

6. INTERES PUBLIKO GORENEKO PROIEKTUEN ERREGULAZIO BERRIARI BURUZKO MOZIOA.

Alkateak adierazten du, Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari dela Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua. Horren edukiaren aurrean sortutako kezka eta zalantzak oinarri hartuta, ondorengo mozioa aurkezten du:

"INTERES PUBLIKO GORENEKO PROIEKTUEN ERREGULAZIO BERRIARI BURUZKO MOZIOA

Gaur egun, Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean, eta zuzenketak aurkeztu ondoren, Legebiltzarreko prozeduraren fase aurreratuan dago, epe laburrean onartu dadin.

Eusko Jaurilaritzak aurkeztutako lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketetarik baten xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea aldatu eta figura berri bat arautzea da, hau da, PIPS edo Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura sortzea.

Aldaketa horren bidez, Eusko Jaurilaritzari ahalmena ematen zaio ustezko ingurumen-hobekuntza izan dezakeen edozein azpiegitura Interes Publiko Goreneko Proiektu izendatzeko, baldin eta sustapen publikoa badago, hala nola, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak, zaborteak, araztegiak, erazketa-proiektuak, etab. Gainera, ez zaie aterik ixten beste proiektu mota batzuei, hala nola ekipamendu handiei edo bestelakoei, baldin eta ingurumenaren aldetik nolabaiteko justifikazioa badute (eremu degradatu batean planteatutako ia edozein proiektu, esaterako, antzinako hondakindegia batean golf-zelai bat...).

IPGP izendapen horrek lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresna guztiak azpiegitura berrira egokitu beharra ekarriko du, hau da, IPGPak, herritarren parte-hartzearekin eginitako udalen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreari inposatu egingo zaizkie, balizko interes orokorreko proiektu horiek toki-eremuko administrazio publikoen irizpidearen aurkakoak izan arren; zentzu horretan IPGPak HAPOa baliogabetu egingo du. Are gehiago, Lurralde Antolamenduari Legearen aldaketa honek toki-erakundearen prebentzio-kontrolerako ahal ere baliogabetzen du.

"IPGP" figura, beraz, lurralde- eta hirigintza-plangintzaren inguruan ezarritako adostasunaren aurkako eraso bat da. Toki-eremuko autonomia eta demokrazia nabarmen urratzea, udalari ez baitaio aukerarik ematen bere lurraldearen barruan desegokitzat jotzen dituen erabilerak mugatzeko.

Kezka handiz ikusten dugu Ingurumen Administrazioaren Legea laster baldintza horietan onartu ahal izatea. Hori dela eta, Aramaioko Euskal Herria Bildu Udal Taldeak honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartzeko:

1. Aramaioko Udalaren Osoko Bilkurak adierazten du Lurralde Antolamenduari buruzko Legeak Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura jasotzearen aurka dagoela, eta baita ere, gure udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka dagoela.
2. Aramaioko Udaleko Osoko Bilkurak EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari eskatzen dio, udalen udal-interesa defendatzeko, jendaurrean adieraz dezala aurka dagoela eta dagozkion kudeaketa guztiak egin ditzala Lurralde Antolamenduari buruzko Legea aurreko puntuan deskribatutako moduan alda ez dadin.
3. Aramaioko Udalaren Osoko Bilkurak mozio honen edukia Eusko Legebiltzarrean eta EUDEL Euskal Udalen Elkartera bidaltzea erabaki du."



Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta, proposatzen du, alkateak aurkeztutako mozio testuari zuzenketa. Zuzenketa testuak horrela dio, hitzez-hitz:

“INTERES PUBLIKO GORENEKO PROIEKTUEN ERREGULAZIO BERRIARI BURUZ ALKATEGOAK AURKEZTUKAKO MOZIOAREN ZUZENKETA

Azken hamarkada, oro har, ingurumena arrisku larrian jartzen duen garapenaren ondorioak agerian uzten ari da eta zibilizazio gisa, aurrekaririk gabeko erronka bat planteatzen digu, berehala erantzun behar dioguna. Mehatxu global horrek, erakunde gisa, berotze globala ahal den neurrian arinduko duten ekintzekin konprometitzeko eskatzen digu zuzenean.

Parisko goi-bilerak mugari batzuk ezarri zituen, eta Glasgown egin berri den munduko goi-bileran indartu diren konpromiso batzuetara zuzendu gintuen. Konpromiso horiek 2030. urtea dute ardatz, gainditu beharreko lehen erronka nagusia baita. Horregatik guztiagatik, azkar jokatu behar dugu, interes orokorra partikularraren gainetik jartzen duten tresnak erabiliz.

Askotan berritzaileak ez diren tresnak erabili behar ditugu, hala no/a Uraren Europako Esparru Zuzentaraua, zeinak hierarkia argia ezartzen baitu interes orokorreko jarduketa estrategiko europarrak nagusitzeko, beharrezko ikuspegi g/obalik ez duten estatu-edo eskualde-politiken gainetik. Aipatu tresna horiek, bidenabar, inguruko autonomia-erkidego inguruko ezarrita dute, Nafarroa barne eta Estatuko Gobernuak naturaltasun osoz aplikatzen ditu, hainbat eremutan, interes orokorreko proiektuen babespean.

1. Aramaioko Udalerria jakitun da gizateria osoak dituen ingurumen-erronka handiez, bai globalki, bai tokian-tokian: klima-aldaketa, kutsadura, biodibertsitatearen galera, baliabideak xahutzea eta itsasoen plastifikazioa saihestuko duen hondakinen kudeaketa, besteak beste.

2. Horrenbestez, Aramaioko Udalak berretsi egiten du gure energia-eredua deskarbonizatzearen aldeko ekintza eraginkor eta zehatzei modu erabakigarrian aurre egin behar zaiela, bere fokua arinduz eta lotutako prozesuen eraginkortasun energetikoan jardunez. Era berean, gure hondakinen kudeaketa arduratsuak Ekonomia Zirkularrean eta Erosketa Publiko Berdean modu erabakigarrian aurrera egingo duten neurriak ezartzera eramango gaitu, kutsadurari bere adierazpen guztietan aurre egiteko eta, horrela, pertsonen osasuna eta gure biodibertsitatearen galera babesteko.

3. Aramaioko Udalak bere gain hartzen du helburu horien interes publiko orokorra, eta interes hori, duen izaeragatik, udalerriko bizilagunek partekatu eta bultzatu behar dute. Helburu amankorrun hori ezin da egon tokiko interesen menpe, baldin eta murgilduta gauden klima-mehatxuari erantzuteko proiektu estrategikoak oztopatzen baditu.

4. Aramaioko udalak Eusko Legebiltzarraren gehiengo demokratikoaren zilegitasuna aitortzen du, aipatutako erronka larriei beharrezko eta premiazko irtenbideak emateko eraginkortasunez erantzun ahal izango dien lege bat onartzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseilua gaituko du, betiere izapide arduratsu, garden eta bermatzaile baten bermearekin eta ingurumen-legerian horretarako ezarritako prozedurek exijitutako eskakizunak zorrotasun osoz betez.

5. Udalaren ustez, Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua Eusko Legebiltzarrean lantzen ari den Lantaldean onartu den Interes Goreneko Proiektu Publikoen figurak, hain zuzen ere, erronka horiei gizarte gisa duten erantzukizunetik erantzutea ahalbidetu nahi du, ingurumen-balioen defentsaren alde eginez eta hondakinen kudeaketa jasangarrian konpromisoak gauzatzeko beharrezkoak diren instalazioak ahalbidetuz, ekonomia zirkularra sustatzeko planetan eta klima aldatetari aurre egiteko beharrezkoa den deskarbonizatorako energia garbien ekoizpenean aurrera egiteko.

6. Era berean, Aramaioko Udalak badaki "not in my backyard" adierazpenarekin laburbiltzen den jarrerak ezin gaituela eraman, trantsizio ekologiko justu bat defendatuko duen eredu energetiko eta ekonomiko jasangarria birformulatzeko aurrerabidea galtzea.”

Gaineratzen du, legebiltzarra gehiengo zabal batek aukeratutako erakundea dela eta, bertan, erabakiak hartzen direla aldeko gehiengo jakin baten bidez eta jardunbide jakin bat jarraitu ondoren. Bestalde, ingurumena jokoan dagoela eta 2030 urteko epemuga gainean dugula; zerbait lortzea nahi baldin bada, erabakiak hartzea premiazkoa dela, lehenbailehen ekintzetara pasatu behar dela.

Santiago Balantzategi Beitia zinegotziak erantzuten du, hala ere, egitasmo horretan interes ekonomikoak ere badaudela artean eta beste modu batetara ere ekin daitekeela.

Alkateak gehitzen du, udalek gai horretan dituzten eskumen eskasak gehiago mugatzen dituela arau horrek eta, besteen artean, herri txikiak beraientzat nahi duten garapena lotuko dutela beste toki batetatik (hirietatik) hartutako erabakiek.

Besterik gabe, bozketa deitu eta Udalbatzak, EH BILDUKO 6 zinegotzien aldeko bozkarekin eta EAJ-PNV udal taldeko bi zinegotzien aurkako botoarekin, “Interes publiko goreneko proiektuen erregulazio berriari buruzko mozioa.” izendaturiko adierazpena ONETSI ETA BERE EGIN DU; eta, horrenbestez, mozioaren zuzenketa testua baztertu egiten da.

7. GALDERAK ETA ESKAERAK.

1. Pedro Elosegui González de Gamarrak galdetzen du, zergatik ez den aztertze onartu EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako "Migratorako euskal itun soziala".



Esp. kodea.: 2021APAK0009

Gaia: 2021/11/25 UDAL PLENOAREN OHIKO BILKURAREN AKTA

Alkateak adierazten dio, azaroaren 24an eman ziotela sarrera eskaerari, hau da, osoko bilkuraren bezperan. Eskaerari atxiki zioten "Migraziorako euskal itun soziala" dokumentua. Hala ere, bai dokumentua eta bai gaia lantzeko ez da denborarik izan. Halaber, gaiak duen garrantzi eta sakontasunaren jakitun, hurrengo batzordean lanketa egiteko asmoa agertu du.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.